

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Omenaldi gogoangarria

Jendetzak azken agurra eskaini zion Amaia Agirre Gonzalezzi / 2-3

Txirrindulari Eskola

Denboraldiari ekiteko prest dago Andoaingo Txirrindulari Eskola / 10-11

Santa Ageda bezperako koplak, garaian garaikoari eta tokian tokikoari / 8-9

Kaldereroen etorrera eta Inauterien hasiera, datozen egunetako Agendan / 14

EGAPE
Urrietarren ikastola publikoa

MATRIKULA OTSAILAK 13-24

www.egape.eus

HH-LH egape@egape.eus 943009275
DBH egapebhi@egape.eus 943899425



Jendetza elkartu zen omenaldian. AIURRI

Amaia Agirre Gonzalez azken agurra

Ehunka lagun bildu ziren San Juan plazan, joan den larunbat arratsaldean, Amaia Agirre Gonzalez herrikideari agur esateko. Omenduaren senitartekoak eta lagunak igo ziren oholza gainera

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Jende andana bildu zen, iragan larunbatean, arratsaldeko 17:00etan Urnietako San Juan plazan, Amaia Agirre Gonzalez herrikideari azken agurra emateko. Mendizalearen argazki-sorta batek eman zion hasiera omenaldiari, eta, haurtzarotik abiatuta, mendi-tontor garaie-tarainoko ibilbidea laburtu zuten irudiek, Aitor Furundarena Usabiaga soinu-jotzailearen doinuek lagunduta. Joseba Lizaga urnietarra oholzaratu zen, lehenik, omenaldia gidatu

eta, gerora, banan-banan, hitza hartu behar zuten lagunei nahiz senitartekoei taulara igotzeko gonbitea egiteko.

Soineko zuriz jantzita dantza-zuten agurra Izarne Moreno Manterolak, Janire Juanikorena Berasategik zein Judit Alday Igerategik, eta, txalo zaparrada artean, bide eman zioten Koldo Tapia Garmendiari, herriko mendizale-komunitatearen ize-nean hitz egiteko. "Elur-jauzi batek bezala" astindu zuen Urnieta Patagoniatik etorritako ezusteko desatseginak. Bada,

Ramon Olasagastiren "Mendi minez" liburuko gogoetak plazaratu zituen Tapiak, minak, modu batera edo bestera, samurtzen ahalegintzeko: "Ez dakigu noiztik neurtzen edo sailkatzen ditugun mendiak metrotan eta bizitzak urtetan. Mendi bat txikia edo handia den baino, garrantzitsuagoa da mendi hori gustuko dugun edo ez. Eta, bizitzari dagokionez, berdin; kontua ez da bizitza luzea edo laburra den, baizik eta nolakoa: sufrikario edo gozamenezkoa... Galdera hauxe litzateke: zein da

kontua, bizitzari urteak eranstea, ala urteei bizia ematea?

Mendian, eskaladan, alpinismoan... bizia arriskatzearaino, galtzeraino dabilenak zer bilatzen duen jakin nahi izaten dugu sarri, eta ez! Ez daukagu horretarako erantzun egokirik. Pasioek ez baitute arrazoiaren logikarik ulertzen; inork ez baitu oraindik deskubritu maitasuna zein materiaz egin dagoen, maiteminduak elkarri halako indarrez katigatzeko, edo mendizaleak mendiari ezin uko egiteko moduan. Garbi dagoena da materia hori zerbait indartsua dela, bizitza galtzeko arriskua hor dagoela jakinda ere mendizaleak mendira jotzen baitu, behin eta berri. Pasioak ezin litezke ez azaldu eta ez justifikatu. Sentitu egiten dira, ala ez".

Nor bere pasioak bizi duen modu berean bizi zuen Amaia Agirre Gonzalez bere mendiminak. Bada, Mikel Laboaren kantuko hitzekin amaitu zuen Tapiak. "Benetan maite duenak, ordea, badaki, txoria txori izango bada, hegoak zabal behar dituela, eta libre. Eta guk, oinaizeak oinaize, txoria genuen maite, Amaia dugu maite".

Bizitzeko gogo aseezina

Gailurren bueltan, familia ederra sortu zuen, urtetan, Agirrek. Hala, Espainiako Mendi Kirol

Etxeko eskertza

"Amaia Agirre Gonzalezen familiak azken bi asteetan jasotako maitasun keinu eta laguntza anitz eskertu nahi ditugu.

Eskertu, lehenengo egunetik Urnietako Udalak, Eusko Jauriaritzak, Espainiako Enbaxadak Argentinan, Mendi Federazioak, mendi familia zabalak, Huescako osasun langileek, familiartekoeak, lagunak eta bizilagunek eman diguzuen sostengua.

Eskertu bihotzez, larunbateko ekitaldi ederra antolatzen aritu zareten guztioi, baita bertan parte hartu duzuenoi eta bertara hurbildu zaretenoi ere.

Azkenik, eskertza handi eta berezia, Julen Berrueko (Amaiaren bikotea) eta bere gurasoei. Eta nola ez, Julenekin Amaia eta lker gertutik agurtzera Patagoniara joan diren mendilari guztiei.

Eskerrik asko".

eta Eskalada Federazioko hiru kidek ere hartu zuten hitza, omenduarekin batera, denbora luzez, tontorretatik galduta edo paretetatik zintzilik egondako Amaia Segurola Barandak, Uxue Loizu Ascassok eta Maialen Rojo Eigurenek. "Abentura eta bizipen zoragarriak" bizi izan zituzten guztiek batera, eta energiaz beteriko Amaia indartsu eta irribarretsua hartu nahi izan zuten gogoan, harekin batera, bidea konpartitzeko aukera edukitzeaz oso eskertuta: "Mendia izan duzu pasiorik handiena; zoriontsu egin zintuen. Zure bizi-gogoa aseezina zen, mendira entregaturik bizi izan zara. Hainbeste ematen zizun, ez zenuela beste ezer behar, loturarik gabe, batetik bestera, hegan eginez, motibazioak gidatuta.

Aske bizi izan zara, eta zure barnea entzuten ikasiz, aske izateko hautua egin duzu, zure pasioari, guztiz, entregaturik. Nork ez du horrelakorik nahi? Bizizale handia izanik, beti izan zara eredu gu guztiontzat eta betiko izango zaitugu, inspira-

zio iturri. Alpinistentzat dagoen munduko txoko eta bazter politenariko batean geratu zara; betiko, mendiari besarkaturik. Patagoniako haizeak hemengo bihotz guztien berotasuna zuzana eraman dezala. Bizitza bizitzen irakatsi zigunari, bizizaleenari, maite zaitugu".

Gailurretik gora

Bigarren etxe izan du hamar-kada luzetan Egape Ikastola Joxe Mari Agirre Amaieren aitak, eta alpinistak ere bertan eman zituen lehen pausoak. Neska alaia bezain jatorra oroitzen dute eskolako irakasleek mendizalea, arduratsua eta ikasle fina, "beti gailurretik gora". Horrela aurkitu zuen bizipoza omenduak, gailurretik gora, Santa Barbarako zirrikituak eskalatzen, Ordesako hormetan, Karakorumen, baita Patagoniako Fitz Roy-en ere. Ixiar Artola irakaslea oholtzaratu zen, Egape Ikastolaren doluminen ordezkari: "Horixe zuen pasio Amaiak, hortxe sentitzen zen ondoen, gailurretik gora". Amaia-aren familia ere izan zuten gogoan, "erretiroa hartu arte, urtetan, lan bikaina egin duen" Joxe Mari Agirrerekin ahaztu gabe. Gailurretik gora bera ere beti: "Egapeko langileok osatzen dugun familiak zuen samina sentitu du eta gure elkartasuna eta indarra helarazi nahi dizuegu, batez ere, zuei: Joxe Mari, Belen, Jon eta Jokin. Amaia ez da urrundu, gertu dugu. Etsipenak zauritu egin gaitu, bihotzak ez du atsedetik, gure arnasak Amaia behar du. Indarrak itzuli arte, gure ondora magaldu zaitetzte, ez zaituztegu bakarrik utziko. Amaia, gailurretik gora, gure izarretan zaude". Elkartasunari bide eman zioten, gero, kantuz plazaratutako Fermin Argiñarenaren bertsoek; saminean lagun izan ziren bere doinu eta errimak.

Lagun-minen hitzetan

Ane, Maialen, Itziar, Paula, Izaskun, Nora eta Esti. Horiexek zituen alpinistak Urnietan konplize handien. Pixkanaka-pixkanaka, kuadrilla ederra osatu zuten, mendizalearen etxean ikusitako pelikuletan, Belen amak prestatutako txokolata beroetan, edo fikziozko musikataldean, baita Agirrek berak eskalatzeo boulderra garajeen eraiki zuenean ere. Oroitzapen

Argiñarenaren bertsoa

*Besarkada bat familiari
eta gure maitasuna.
Golpe batekin bi gazte hillotz,
naturaren gaitasuna.
Fitz Roy gailurrak lapurtu digu
Amaian alaitasuna.
Patagonia ta Urnieta
malkoz blaitu gaituzuna.
Askatasuna zure bizitza,
bizitza askatasuna.*

horri tira egin eta gomutan izan zuten Itziar Belver Pinedok nahiz Estibalitz Soria De Lerak Zaragozan, Bruselasen, Madrilen edo Huescan bizi arren, zeinen gertu sentitzen zuten beti laguna: "Horretarako gaitasuna zenuen, beti zeundelako mezu bat bidaltzeko, deitzeko edota bisita azkar bat egiteko prest. Askotan, zure saltsatan sartzen zenigun eta gu poz-pozik.

Azken urteak, mendian barrena eman dituzu. Bertan zinen zoriontsu. Umiltasun handiz kontatzen zenituen zure asmo berriak. Izugarriko bizi-grina eta mundua jateko gogoa transmititzen zenuen. Mendia zen zure ilusioa eta horri lotzea erabaki zenuen. Zeri lotu hautatzea, ez al da hori askatasuna? Zer da, bestela, aske izatea?

Hainbat alditan, zure pasioa elkarrekin partekatzeo aukera izan dugu, irailean, Pirineoetara joan ginenean bezalaxe. Zure furgonetan bizitako momentuak gordetzen ditugu: konfesionario bihurtu zen kandelen argitan, Michelin izarra duen jatetxea eta baita, baratzeko produktuekin, kontsulta mediko edo traistero ere. Denetarako lekua zenuen".

Kuadrillako zatitxo bat gelditu da Patagoniako "txoko zoragarri batean", eta "ezer ez da berdin" haientzat, ez eta izango ere: "Hutsune honekin bizitzen ikasi beharko dugu, baina zure parte bat ere gudan biziko da beti. Ez da hitz egiteko modu bat, izan ere, gu ere zu gara, gure niak badu zuretik asko, zurekin batera eraiki baititugu geure izateak. Maite zaitugu, zure kuadrilla".

Irribarre amaigabeko Amaia

Familiak, beharbada, ez zuen inoiz guztiz ulertu alpinistak

mendiarenganako zuen miresmena, bera gailurrekin maitemindu zen horrenbeste txunditu baitziren gailurrak Agirrerekin. Alabaina, bihotza uzkur-tuta bezain harro igo zen ohol-tza gainera Jon Agirre, arrebak, bai bere pasioan, bai egunerokoan erakutsitako ausardiagatik: "Azken asteotan, zuri buruzko gauza asko entzun ditugu: alpinismoaren promesa handia, eskalatzailerik onenetakoa, emakume seguru eta indartsua... Une oro nola bizi nahi zuen erabaki zuen emakume librea, eta, minutuero, erabat bizi izan zena. Bai, gauza horiek guztiak zinen, baina, niretzat, ez diozu sekula arrebak txikia izateari utziko.

Dena nik baino hobeto egiten eta nahi zuen guztia lortzen zuen neska azkarregia, jangelatik libratzeko bazkaria prestatzeko konpentsatzen ziola erabaki zuen nerabea, eskaladako zein literaturako sariak irabazten hasi zena. Nire etsipenerako, hiru urterekin beti nirekin etorri nahi zuen neska txikia, limoizko eta txokolatzeo kukurutxoia janda, erabat zikitzen zena, irakurketa-txandak antolatzen zituena, biok nahi genuen liburuaren kopia bakar bat oparitzen zigutenean, igerilekuko kortxoazko taulak ihes egin bezain laster, igeri egiten ikasi zuena edo Game Boyarekin jokatzeko nituen partidak galdu nahi ez, eta, niri itsatsita, ilearekin kilimak egiten zizkidana. Baina batez ere, irribarre amaigabea zuena. Plaza honek guztiak beti oroituko du bizi osoan izan zenuen irribarre hori.

Bi aste igaro dira, inoiz jaso genezaken albisterik txarrena jaso genuenetik. Zauri handi bat ireki zaigu, geratu zinen pitzadura baino baino askoz ere zauri sakonagoa. Nahieran bizi izan zinen une oro, zure grina zenari gorputz eta arima emanez. Espero dut horrek etorkizunean gu kontsolatzea. Izan ere, goizegi joan zinela uste dut orain; hainbeste amets betetzeo, hainbeste tontor igotzeko, hainbeste horma konkistatzeko. Mina beti izango dugu gurekin, baina zin dagizut ikasiko dugula zu polit oroitzen, eta irribarre egingo dugula zurekin gogoratzen garen bakoitzean. Beti egongo zara gudan, eta mendiak igotzen jarraituko duzu, zure bizitzako zatitxo bat par-

Hitzak eta doinuak, Amaia gogoan



Anaiaren adierazpena hunkigarria izan zen, oso. AIURRI

Hitzak Alpinistaren gertuko hainbat lagun igo ziren ohol-tza gainera, harekin batera bizitako uneak gogoan hartzeko. Jon Agirre Gonzalez anaiak ere hartu zuen hitza: maitasunez beteta zuzendu zitzaion arrebari.



Amaia, aitaren besoetan, San Juan plazan, aspaldiko inauterietan. AIURRI

Doinuak Musikak eta kantuek garrantzia hartu zuten omenaldian. Aitor Furundarena soinu-jotzaileak girotu zuen ohol-tza. Horrez gain, bertso ederra abestu zuen Fermin Argiñarenak eta Andoaingo abesbatzak eman zion amaiera agurrari.

tekatu duzun ororen bihotzean. Asko maite zaitut eta beti eramango zaitut nirekin".

Bukaeran, lore-eskaintza egin zen, Belen amaren Antonio Machado, Miguel Hernandez eta Ruben Dario autoreen poemak irakurketa entzun ondoren. Eskerrik beroena adierazi zuen alpinistaren familiak, jasotako babesagatik eta, omenaldia gertatu zedin, parte hartu zuten norbanakoei, baita Urnietako abegikortasunagatik. Andoaingo Udala musika eskolako abesbatzarekin amaitu zuen omenaldia: *Signora delle cime* pieza interpretatu zuten, lehenik, elur-jauzi batek harrapatuta desa-

gertu zuen Bepi Bertagnoli alpinistaren omenez sortutako kantua. Laboaren hitzekin egin zion Urnietako herriak azken agurra Amaia Agirre Gonzalez. "Hegoak ebaki banizkio, neria izango zen, ez zuen alde egingo. Baina, horrela, ez zen gehiago txoria izango, eta nik, txoria nuen maite...".

Mendiak goxo har zaitzala, Amaia.

OMENALDI EKITALDIKO LABURPEN BIDEOA IKUSGAI DAGO AIURRI.EUS GUNEAN

POSTONTZIA

SORABILLA AUZO ELKARTEA ANDOAIN

Gezurra baino okerragoa da egi erdia

Andoaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak N-1 eta A-15 errepideen trafikoa Sorabillako saihebidetara batera lekualdatzea aurreikusten du. Duela gutxi aurkeztu den “Andoain bizigarri” dekalogo saihebidetara horretan oinarritzen da eta ez du zalantzan jartzen.

“Andoaingo saihebidetara” edo “kanpo aldeko saihebidetara” Sorabillan lubaki izugarri bat egiteko egitasmoa da. Gauzei beren izenez deitu behar zaie, eufemismorik gabe: “Sorabillako saihebidetara”. Sorabillako lurraldearen bizkarrezur osotik igaroko litzatekeen saihebidetara horrek bere espazio eta bizipen bilbe guztia suntsituko litzuke, eta hondakin bihurtuko luke Andoain osoarentzat funtsezkoa den bere identitate-paisaietako bat. Ingurumen inpaktu horrekin, Sorabilla zokoratu eta desegin ez ezik, Andoainek bere burua ere mutilatuko luke bere paisaia hurbilenean.

Saihebidetara hori, 2010eko Plan Orokorrak zein “Andoain bizirik” dekalogoak oinarri dutela, ez da ekologikoa, nazioko eta nazioarteko ingurumen-araudia urratzen du, eta legez kanpokoa da. Bere birdimentsionatze hipotetikoa ere berdina, gizartearen, kulturaren, ingurumenaren eta ekologiararen aldetik, suntsitzailea izango litzateke, eta trafikoa arazo konpontzeko ez eraginkor.

N-1 errepidearen afekzioetarako konponbideak badaude lekuz aldatu behar izan gabe, Andoain oraindik geratzen den paisaia-apur hori suntsitu gabe. HAPOak eta hori babesten duen dekalogoak, Sorabilla herriguneko defizitak biltzeko eta ezkutatzeko leku bihurtu nahi dute.

Beraz, dekalogo hori sinatzen duena ados dago, trafiko-arazo bat konpondu beharrean, arazo hori,



Sorabilla auzo elkarteak landutako argazki-muntaia.

larriagotua, Sorabillara eramatearekin, ondorio guztiekin.

Eta dekalogo hori sinatzen duena ados dago ere bai Andoaineko Hiri Antolamenduko Plan Orokor zaharkitu eta desarrollista horrekin, herria egun den baino lo-hiri handiagoa bihurtzeko.

Sinatzea ekintza libre, garrantzitsu eta arduratsua da, eta, are gehiago, gai honetan. Sinatzen duenari jakinarazi behar zaio zertan den HAPOa eta zer ondorio dakarren. Sinatzea erraza da kostua ez dakarrenean edo hala uste denean, paradisu bat eskaintzen dutenean, eta, hain modu errazean, eskura

daitekeenean. Letra txikia edo estalita dagoena irakurri behar da. Sinatzea norbaitek ordainduko duen kontratua da. Erantzukizun-ekintza bat da, eta ondorioak ditu. Hipoteka bat da. Informazioa jaso eta galderak egin behar zaizkio buruari, ez manipulatuak izateko. “Azaldu izadazu erraz eta azkar” edo “esadazu non sinatu behar duen eta kito” moduko jarrerak era arriskutsuan erakartzen ditu pagotxa munduak eskaintzen dituzten salbatzaileak, fikzioak eskainiz ez pentsatzearen eta delegatzearen truke.

Borondate onak nonahi daude, baina, askotan, beste

helburu batzuetarako martxan jarritako operazio eta operatiboak instrumentalizatzen dituzte. Onerako edo txarrerako, askotan, isiltzen edo ezkututzen dutenagatik ezagutzen ditugu pertsonak eta erakundeak, esaten dutenagatik baino gehiago. Gezurra baino okerragoa da egi erdia esatea edo informazioa ezkutatzea.

Inor ez dago zarataren, kutsaduraren eta inbasio espazialaren alde. Eta Sorabilla 2004tik dabil gai horrekin adi eta aktibo, beste inor ez zegoenean eta espero ez zenean. Eta, bat-batean, 2022ko maiatzean agertzen dira berrerosle askatzaileak. Zergatik ez lehenago arazoa existitzen bazen? Izan ere, beste irtenbide logikoago batzuek zalantzan jarri dituztelako aitortu gabeko interes higiezin eta politiko batzuk. Bat-etortze bitxi bat (aliantza), hauteskunde garai honetan bere indar mediatiko eta ekonomiko handi guztia hedatzen ari dena Andoainean.

Buruntza inguruan egiten ari direnak denbora errealeko pistak ematen dizkigu nora eraman nahi gaituzten. Andoaingo prozesuak ez dira etxeak behar dituztenak, baizik eta higiezin agentziek behar dituzte Andoaingo lurak. Eta espekulazio eraikitzailearen bultzada, gehiegizko hazkundea, plangintza publikoaren esku-hartze eztabaidagarrietan oinarritzen da. Batzuei galdetu beharko diegu zer defendatzen ari diren, Andoaingo interesak ala batzuen interesak Andoainean.

Baina Sorabillak beste begirada bat eta beste proposamen batzuk dituenek, duela urte askotatik defendatzen dituenak, isilarazten, neutralizatzen, deskalifikatzen eta bere ospea amorruz kentzen saiatzen ari dira. Beste iritzi batzuekiko tolerantzia falta horren aurrean, Sorabillak benetako

elkarrizketa aldarrikatzen du, eta ez mendekotasuna. Liskarra bilatzen ari diren tranpan ez da eroriko. Nahiago du oihurik egin gabe jardun. Ez du gaiaren iparra galtzen, eta ez du nahastean gai ezberdin eta loturarik gabekoekin. Sorabillak ez du deskalifikatzen, argudiatzen baino. Ez da saiatzen garaitzen, konbentzitzen baino. Ez du ezer ezkututzen. Ez du inor gezurretan edo engainatzen eszenaratze handien atzean. Aurrez aurre ekiten dio benetako arazo konplexutasunari. Pedagogia egiten du eta ez demagogia. Sorabilla ez da izutzen eta ez da ere kikiltzen.

Sorabillak ez du hondakin eta baliabide hutsa bihurtu izatea nahi, hau da, Andoaingo negatiboa. Ez du gehiago onartuko ezikusia izatea, mespretxuz tratatua izatea edo bere mezuak inork manipulatzeko. Andoaingo Udalak ere, politikoki eta operatiboki uzurtuta gai honen inguruan 2022ko irailaren 12tik hona, ez du bete Sorabillaren ahotsari eztarria emateko bere betebeharra, beste agente batzuekin egin duen bezala. Ez da bidezkoa, eta eztabaida lekuetan zein eskubideetan, Sorabillak errespetua eta berdintasuna eskatzen ditu.

Ezinbestekoa da amaiera ematea ondare naturalak suntsitu, kultura-ondasunak eraitsi, enklabe historikoak aldatu eta finkatutako bizipen-eremuak aldatzen dituen zigorgabetasunari, ez iraganik ez etorkizunik ez balego bezala dena suntsitzen jardunei alegia. Zenbat da nahikoa?

Horregatik, saihebidetara hau ezin denez egin, Sorabillak eskatzen du lehenbailehen Andoaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspun kritikoa egitea eta honek adierazten duen lurralde-antolamenduaren eredia, bereziki saihebidetara oinarrituta dagoelako.

PROTAGONISTA

"Festa polita da, umeek izugarri gozatzan dute"

JESUS IBAÑEZ "TXUPI" KALDERERO KONPARTSAKO ERAGILEA

Aurten ere Hungariatik Andoainera helduko da Kaldereroen konpartsa. Larunbat arratsaldean izango da, eta herrigune osoa zeharkatuko dute

Xabier Lasa ANDOAIN

Kontatuko al diguzu noiz ikusi ahal izango dugun Kaldereroen Konpartsa herriko kaleetan? Egingo duen ibilbidea, geldialdiak...

Kaletxikin jarri da hitzordua, 17:00etan. Hortik, Zaharren egoitzara abiatuko gara, eta bertan bizi diren egoiliarrei eta langileei saioa eskainiko diegu. Ondoren, Goikoplazara igoko gara. Kanpamentua jarriko dugu bertan 17:30ak aldera, eta kaldereroen kantutegiko hainbat doinu biziberritzeaz gain, Erreginak eta bere damak hitza hartuko dute udaletxeko balkoira igota. Zumea Plazara heldu bitartean, geldialdi mordo egingo dugu: Plaza Morean, Juanita Alkain plazan, edota Urkiola, Txindoki eta Gaztelutxo tabernen parean. Gora Kaletxiki Txarangaren esku joango da musika, Joxe Mari Oiartzabalen zuzendaritzapean, beti bezala. Ez dugu ahaztu behar, berak sortuak direla kantutegiko zenbait pieza, "Andoingo Kaldereroak" izeneko doinu bizia, besteak beste. **Erregina eta bere dama Andoingo Kaldereroen ezinbesteko osagaiak izaten dira.**

Luciano Uribesalgo eta Joxean Well animatu zaizkigu bi paper "izar" horiek betetzera aurten; grazia asko eta lotsa gutxi behar da bi figura horien larrutan sartzeko, eta biak ere ondo moldatuko direla iruditzen zait (barreak). Karrozan beste laguntzaile gaztetxoak bidelagun ibiliko dira ibilbide guztian, baina ohitura denez, Goikoplazan, udaletxeko balkoira igo, eta publikoak ikusmin bereziarekin espero izaten duen mintzaldia egingo dute. Betiko legez, Andoainera etorri ziren azken alditik herria zenbat aldatu den azalduko dute, eta batez ere, 2022ko urtean barrena herrian izan diren zenbait gertakizun



Jesus Ibañez "Txupi", artxiboko irudian. AIURRI

hizpide izango dituzte, ironia eta ateraldi xebebreak nagusi izanda betiere.

Irekia da Konpartsa.

Erabat! Festarako gogoa daukan edonork har dezake parte. Eta ez da instrukzio edo azalpen askorik behar, nahiko jakinekoda da nola behar den etorri: tradiziozko jantzia soinean, eta, zar-tagina eta mailua eskuetan... Entsegurik ez dugu egingo aurten; izan ere, beste urtetan noiz edo noiz probatu duenak badauki zertan den festaren muina... Lehenengo aldiz parte hartzeko tentatua dagoen horri, berriz, animatu dadila esango nioke. Ez dadila lotsatu edo izutu; behin Konpartsan murgilduz gero, ibilian-ibilian, erraz hartuko du erritmoa. Ziur gozatu egingo duela jaiarekin, eta hurrengo urtean errepikatzeke grina sartuko zaiola gorputzean!

Afariarekin amaitu ohi duzue jai, larunbatean.

Bai, Errekaburu elkartean biltzen gara. Bertan parte nahi duenak, 679043812 telefonora deitu besterik ez du, baita egunean bertan. 20 eurotan jarri da prezioa.

Bezperan, ostiralean, Ondarretako ikasle gazteen Kaldereroen jai ospatzeko ohitura hartu duzue azken urtetan.

Festa polita da, umeek izugarri gozatzan dute! Sekula parte hartu ez duen herritarrari gerturatzeko gomendatuko nioke; 15:30etik 16:30erako tarte horretan, Ondarreta eta Santa Krutz ermita bitarteko joan etorria egiteko. Merezki du. Gora Kaletxiki txarangako musikariok beti aritu izan gara pozik kalejiran. **Badira hamarkadak Andoainen helduen Kaldereroen konpartsa irteten dela kalera. Jai errotuta dagoela esan al daiteke?** Ez nuke esango hala denik. Kostatzen ari zaigu urte urte antolatzea eta herritarrak erakartzea, eta hori ez da seinale ona. Eta ez dakit zein den arrazoi, zehazki. Andoainen bestela ere jai ugari ditugulako? Ez delako geure-geuretzat hartzen? Zer esango dizut, ospakizuna, berez, alaia eta umoretsua da, aspaldiko tradizioz dator Euskal Herriko zenbait tokietan, inauteriak iragarri izan dituen beti...



Patxi Mendikute eta Iñaki Igerategi, Kaldererotako erreginak, 1989an. AIURRI

Patxi Mendikute in memoriam

Kaldereroen atarian zendu da Patxi Mendikute Mujika kaletxikitarra, 80 urte zituela. Kalderero jaiarekin lotura estua izan zuen, hogeita hamar urte atzera. Aiurriri eskainitako elkarrizketan, 2011n, garai hura horrela gogoratu zuen: "Felix Martinez de Lezeari bururatu zitzaion kaldereroak Andoainera ekartzea, 1987an. Baiezkoa eman nion eta gogo onez atera nintzen, hamaika urtez segidan". Sonatuak izan ohi ziren Patxi Mendikute bakoitiko irakurtzen zituen diskurtsoak. "Etxean idatzi eta bezperan Felixi erakusten nizkion; barrez lehertzen hasten zen!". Kritika umorez zabaltzea zen Patxi Mendikute jarduna. "Gidoian Andoainen eta Andoandik kanpo urtean zehar gertatu ziren xebebrekeriak aipatzen ziren, modu ironikoan. Egia esan, askorako ematen zuten herriko hirigintza arloan gertatzen ziren zenbait kontuk...".



Patxi Mendikute, 2011ko apirilko argazkian. AIURRI

ESKELA

Patxi Mendikute Mujika

Andoainen hil zen, 2023ko otsailaren 7an, 80 urte zituela




Haren emaztea: Mari Carmen Urrutia; seme-alabak: Garbiñe (†) eta Peio, Patxi; bilobak: Alain eta Aner; anai-arrebak: Belen, Joxe Mari (†) eta Lourdes; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.



Andoainen, 2023ko otsailaren 8an

GORA ETA BEHERA



AIURRI



Espaloia-aren garbiketa lana, noizko?

Asteartea zen eta igande goizaldetik odol-putzua zegoen, Txitibar plazatik gertu. Jende asko igarotzen da bertatik, eta odol arrastoak merkatalgune ezagunaren parean daude. Dagokionari espaloia zati hori garbitzea dagokio. Duela bi urte, elizaren atzealdeko frutadendan liskarra egon zen eta espaloian agertu ziren odol arrastoak berehala garbitu zituzten. Zergatik ez kasu honetan? Udalarena bada ardura, lanak bere gain har ditzala. Eta beste norbaitena bada ardura, gauza bera. Zatarra baita.



Imanol Goenaga Egibar. EAJ-PNV

Andoaingo EAJ-PNVko alkategaia izango da Goenaga

Zinegotzi lanetan ari da, egun, Imanol Goenaga Egibar 36 urteko andoaindarra

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Bultzada berria eman nahi dio Andoaini, hori adierazi du prentsa ohar bidez: "Ilusioz eta proiektu sendoekin, etorkizuneko erronkei arrakastaz aurre egiteko prest". Alderdiak, bere aldetik, hautagaiaren "prestakuntza, esperientzia eta ilusioa nabarmendu ditu eta, bereziki, lanerako gaitasun handia. Bere ekarpena erabakigarria izan daiteke Andoainentzat, garrantzia handiko une honetan".

Alderdiak ohar berean bere soslaia azpimarratu du: hautagai jeltzalea arkitektoa da ikasketaz, hirigintzan espezializatua, eta lanbide horretan hainbat estudiorerantz lan egin du, birgaitze, energia-eraginkortasun eta obra zibileko proiektuen arduradun gisa. Andoaingo gizarte-bizitzan eta alderdian oso inplikaturako pertsona da, eta orain, Goenagak konpromiso

hori hurrunago eraman nahi du. Eusko Jaurlaritzarentzat ari da lanean, EAJ-PNVk oharran jaso duen bezala: "Goenaga, hain zuzen, Arantxa Tapiaren kabineteko kide izan da azken urteotan, eta sailburuaren konfiantza-nukleoaren parte izan da".

Andoaingo Udaletxean parte hartze aktiboa izan du alor ezberdinetan, nahiz eta funtzio zehatzik ez izan. Agintaldi honen hasieran ez zen zinegotzi modura aritu, ez baitzen bera aukeratu izan. Inaki Egibarrek dimisioa eman ostean hartu zuen zinegotzi akta eta geroztik zeresan handia izan du Kulturaren eta beste zenbait departamentutan. Askotan bera izan da EAJ-PNVren bozeramaile.

Jeltzaleen buruzagitzatza 36 urteko gazte andoaindarren esku dago, Udal politikagintzari dagokionez.



Igandean etxekoek gogoan hartu zuten Joseba Pagazaurtundua. AIURRI

Pagazaurtundua gogoan hartzeko ekitaldi bikoitza

Hogei urte bete dira ETAk Joseba Pagazaurtundua Andoaingo Udaltzain-burua hil zuenetik

Erredakzioa ANDOAIN

Urigoain kultur etxeko lorategian dagoen 'Josebaren Etxea' eskulturaren aurrean, Maider Lainez Andoaingo sozialisten buruak eta Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusiak lore eskaintza egin zuten, Joseba Pagazaurtunduaren hilketaren hogeigarren urteurrenean. Hauxe Lainezen adierazpenaren laburpena, otsailaren 8an eskaini zuena: "Gaur oroimena aldarrikatu behar dugu zure izenean, Joseba, eta hain modu bidegabean kendu zizkiguten beste hainbaten izenean. Zuen ahotsa izan behar dugu, ahots irmoa, eta gogoan izan erailketetako bat bera ere ez zela gertatu behar".

Oroimena bizirik mantentzearen alde agertu zen: "Nahitaez gogoratu behar dugu, bereziki, hurrengo belaunaldiengan pentsatuz. Etxean, familian, ikas-



Asteazkenean Andoaingo PSE-EEK antolatutako omenaldia. AIURRI

tetxeetan ere gehiago hitz egin behar da gure gazteekin, eta elkarrizketa horrek argia izan behar du, gure gazteek hemen zer gertatu den ezagutzeko beldurrik gabe".

Aurreko igandean, 'Pagaza'ren senideek ekitaldia antolatutako zuten.

Ez da lehen aldia

Makaldegiko geltokia jo zuen autobusak, astelehen arratsaldean. Zaratatsua izan zen, baina zorionez ez zen kalte handirik izan. Trafikoa zaintzen zebilen udaltzaingoa berehala hurbildu zen ezbeherra izan zen tokira.

Ez da Makaldegiko markesina aurretik eramaten duten lehen aldia. 2018ko udan ere gertaera beretsua eman zen, toki berean.



AIURRI

PSE-EEren hauteskunde-programa

Andoaindarren ideietan oinarrituta hauteskunde programa osatzearen asmoa azaldu dute, berriki, Andoaingo PSE-EEko Maider Lainezek, Jose Luis Verdascok eta Daniel Garciak. Auzoz auzo joango dira bizilagunen kezak, ezinegonak eta ideiak jasotzen, otsailaren 11ean hasita. Lehen hitzorduak:

- Otsailaren 11, larunbata. 11:30-13:00, Etxeberrieta plaza. Eremua: Sorabilla, Aiztondo, Karrika, Martin Ugalde, Etxeberrieta, Aita Larramendi, Txitibar, Zumea plaza, Belabi, Aingurasutegi eta Goiburu.
- Otsailak 18, larunbata. 11:30-13:00, Juanita Alkain plaza. Eremua: Ondarreta, Juan Bautista Erro, Kale Nagusia, Kale Berria, Zumea kalea eta Olagain.



Elena Milla, Aitor Aizpurua, Ainara Etxarte, Iñaki Perez de Eulate eta Xabier Lopez Plataformako kideak. AIURRI

"Lurraren planifikazioa udalaren eskumena da"

C2 PROIEKTUAK KALTETUTAKOEN PLATAFORMA ANDOAIN

Egitasmo alternatiboa garatzeko dekalogoia aurkeztu dute, eta egun gutxitan milatik gora sinadura lortu dituzte. Era berean, ez ohiko batzarra deitzeko eskatu diote alkateari

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Mila sinaduraren langa igarota, zein da elkateari jarri diozuen muga?

Sinadurak biltzea gauza oso zaila da, horretan dabilenak badaki. Euskal Herria eta Gipuzkoa mailan sina dezaketen biztanleen %10a biltzea asko da. Gipuzkoan 50.000 sinadura lirateke, eta Andoainen 1.100. Gure lehen helburua proportzio horretara iristea zen, eta hori lehenengo astean lortu dugu. Uholde modukoa da. Ikusgarria izango da azken emaitza.

Helburu betegarriak, tangibleak aipatu dituzue. Zergatik adiera hori?

Ez garelako 'lunatik' batzuk. Hau guztia ez da okurrentzia bat. Hasieratik, ingurumenaren aldetik, sustengarria den egitasmoa nahi dugula adierazi dugu.

"ORAIN ERABAKITZEN DENAK HURRENGO 2-3 BELAUNALDIEN ERAGINA IZANGO DU"

Eta errespetagarria bertan bizi diren pertsonekin. Oso une garrantzitsua da bizi duguna. Orain erabakitzen denak eragina izango du hurrengo 2-3 belaunaldiengan.

Helburu betegarri horiek Andoingo Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrean jasota daude, andoindar askori bizimodua hobetuko diena.

C2a aurkeztu dutenek diote Plan Orokorrean jasota dagoena ezin dela gauzatu, ingurumenaren legedi berria eskuan.

Gauzak bereizten jakin behar dugu. 1990ean jada N1 errepidea urruntzeko egitasmoa jaso zen. Garai hartan, tunel luze batekin aurreikusten zen. Aldundiak egitasmo bat idatzi zuen 2010ean, eta, horren arabera, Udalak Plan Orokorra diseinatu zuen. Saihesbidea bezala ezagutzen den egitasmoa ez da Udalak egindako zerbaitekin, Adundiak proposaturikoa baizik. 2010eko egitasmo hori gaindimentsionatuta dago. Kongresutik, diru-partida garrantzitsu bat ekartzea lortu dugu, proiektu bat garatzeko. Sostengarria izan behar du, pertsonen interesak eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra errespetatuz. Gure dekalogoia horretan oinarritzen da.

Sortu den borroka honetan, talka egiten dute Foru Aldundiaren egitasmoak eta udalerriko Plan Orokorra. Muturrera iritsita, zer egin dezake Udalak bere gaitasun erakundearen interesen aurrean?

Interes ezberdinak daude. Gipuzkoako Foru Aldundiak interes bakarra du, eurek sortutako problema bati aterabidea ematea. Bazkardoko lotuneko trafikoa arazoak konpondu nahi ditu, andoindarroi N1 errepideak azken 30 urteotan kalte handia eragiten digula kontutan hartu gabe. Gure airean, soinuaren eta hiri antolamenduan. Hori ez du Aldundiak kontutan eduki.

Bi orrialdeko txostena jaso genuen, halakoren batean. Goiburua honekin: *"Solución a la conexión de la N1 y la A15 a la altura de Bazkardo, dirección Tolosa"*. Txundituta geratu ginen, norabide bakarra aipatzen da.

Bizi dugun arazoa Aldundiak berak sortu du. Urumeako saihesbidea egin zenean, Andoingo Udalak alegazioa aurkeztu zuen. Funtsean, Urnietatik Lasarte-Oria aldera bideratzeko saihesbide hori eta Buruntza aldetik ez pasatzeko eskatuz. Bazkardoko lotunea Abalotz inguruan egitea proposatu zuen Udalak, alegazio hartan, giza-komunitetik urrunago zegoela argudiatuta. Aldundiak ezezkoa erantzun zuen. Trafikoaren arazoaren jatorria hor dago.

"UDALAK JAKIN BEHAR DU N1 ERREPIDEAK ZEIN KALTE SORTZEN DUEN ANDOINGO AIREAN ETA SOINUAN"

Andoindarron eskubidea da gure herria antolatzea, ahalik eta udalerriri onenean bizitzea.

Aldundiaren eta Udalaren arteko talka horretan badago tarteko soluziorik?

Ez litzateke horrelakorik eman behar, eta orainoz ez da eman. Aldundiak beti errespetatu du Andoingo Plan Orokorra. Andoingo Udalaren eskumena lurraren planifikazioa da. Horrelako azpiegitura bat iristean, gure herriko planeamenduan horrelako eragina duenean, bien arteko elkarlan bat egon behar da. Uste dugu afera horrela bukatuko dela. Kongresutik iritsitako 476.000 euroak irailaren 12ko plenoan erabakitakoa gauzatzeko erabiliko da. Ez dezagun ahaztu Udal teknikoek korporazioari saihesbidearen filosofia kontuan hartzea proposatu diotela.

Elkarlanean amaituko dela uste dugu. Andoindarrek erabakitakoa egin behar dute politikariek, herritarren ordezkariek diren heinean.

Enpresak aipatzen dituzue askotan. Enpresa zehazteaz ari al zarete?

Bai, bai. Hasiara-hasieratik daude Mega inguruko enpresak, Calonje ingurukoak, Bordaberriko enpresa guztiak eta haien inguruan dauden beste batzuk ere bai. Itsas Mendi eta Landalan ere plataforman daude. Andoingo enpresaburu askorekin elkartu gara, arazo honen ondorioak jasan ditzaketanak.

Zergatik pleno bat deitu? Gehiengo bat eskuratzeko lorgarria al da?

Ez dugu besterik aurrakusten. Andoingo Plan Orokorra onartu zen bere garaian, PSE-EE eta PP alderdien botoekin. EAJ-PNV bat agertu zen, eta abstenitu zen. Azpikolako harrobia berriro irekitzearen aurka zeudelako. Plan Orokorrekin bat etorriz gero, dekalogoia sinatzen lehenak lirateke. Garai hartan Podemos ez zen existitzen eta Bildu legez kanpo zegoen. Beren jokabidea ikusita, dekalogoarekin bat egingo dutela uste dugu.

Andoingo airearen kalitatea, zarataren auzia eta lurraren antolamendua Udalaren eskumena da. Udalak jakin behar du N1 errepideak zein kalte sortzen duen Andoingo airean eta soinuaren. Alkatea, bestalde, pozik agertu da 476.000 euro iritsi direlako. Aurrekontuan txertatu behar dira, Espainiako Boletinean agertu den unetik.



Matxonean kantari aritu ziren, San Juan plazatik abiatu eta gero. AIURRI

Koplak, Santa Ageda bezperan

Eguerdira aurreratu zuten kantu-erronda, arratsaldean Amaia Agirrerri antolatutako omenaldia iragarrita zegoelako. Ohi bezala, San Juan plazatik abiatu zen Santa Ageda bezperako kantu erronda

Erredakzioa URNIETA

Eguerdiko 12:00tan iragarrita zegoen kantu-errondaren irteera, nahiz eta elizdorreko ordulariak 14:50ak iragarri. Urrietarrek ondotoxo dakitenez, urteak dira ordulariko orratzek, ez

dutela ez aurrera, ez atzera egiten. Matxuratu zen behin, eta, geroztik, ez da konpontzeko modurik izan. Aurten, horixe izan da Santa Ageda bezperako koplak sorta berriaren hizpidea. Koplak atera dizkiote Kantazaun

taldekoek, eta larunbateko kantu errondan abestu zituzten.

Urnietan, gaurkoz, aspaldiko ohiturari eusten diote eta, beste behin ere, Euskal Herrian hain errotuta dagoen ohitura biziberritu zuten.



Elizdorreko ordulariari koplak

Eliz dorrean kokatzen horrelakoak tokatzen, bertan dagoen erlojuari hasi gaitezen koplak.

Hirurak hamar gutxitan asko edo ta gutxi dan, urnietarrak galdetzen dute "paroa" nola utzi dan.

Bakoitza bere lanetan erakusten da obretan, Elizak ez du ezer jakin nahi ta Udala oporretan.

Geldirik dago gaitzakin nola konpondu ez jakin, hemen eskuak garbitzen dira bate bestean aitzakin.

Eliz dorrean lo dago laguntzik ez daukalako, hemen dirua maitatuzten da Jainkoa baino gehiago.

Elkartzen dira elkartzen traturik ez da erditzen, martxan ez dute jarriko baina denbora ez da gelditzen.

Ta non jarriko arrastoa garia edo lastoa, ta diotenez goseak hil zun bi nagusiren astoa


Pulpututikan ulua ajatu zaio lujua, urte batzutan ez da jarriko martxan gure erlojua.



Urnietako
udala

Txotx 2023 GARAIAN GARAIKOA: "TXOTX!"

Elkarrizketak, albisteak... Atal berezia webgunean
www.aiurri.eus



Okm:
batzen gaituen
distantzia



Ane eta Miren, Arantxa lartzaren ahizpak ere kantari aritu ziren. AIURRI

Aurtengoa, Arantxa gogoan

Aspaldiko kantu-erronda parte hartzaileena izan da aurtengo Santa Ageda bezperakoa. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak dozenaka lagun elkartu zituen kantu kalejiran, eta baita ondorengo afarian ere. Aurtengoa berezia izan da, Arantxa lartza Ansa gogoan

Erredakzioa ANDOAIN

Hilabete atzera, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko bazkide eta Santa Ageda bezperako kantu-errondako sustatzaileetako zendu zen. Ezin bestela, aurtengoa haren omenezko kan-

tu erronda izan da. Goikoplazan egin zuten ekitalditxoan, Larramendi Bazkuneko kideek "Santa Agedaren Laguna" izendatu zuten Arantxa, eta familiari "Santa Agedaren Makila" eskaini zioten.

Arantxa lartza Ansa gogoan

*Santa Ageda, Yageda maite
hemen gauzkazu kalean
Arantxa lartza gogoan hartuz
haren omenez eskean.*

*Hutsune handia utzi diguzu
Arantxa adiskidea;
aiurritz zintzo, zuzen ta onbera
zaila zu baino hobea.*

*Makilaz lurra joaz gabiltza
Amalur onari deituz,
guztiok biziberri gaitzan gaur
tristura denak urrunduz.*

*Makil joaldi hauen bitartez,
Arantxa ohore zuri,
zeu izan zaitetz aurrerantzean
urtero gure udaberri!*

Parte-hartze handia



Kale Nagusian, larunbat iluntzean. AIURRI

Doktor Huitzitik abiatuta Urtero bezala, Doktor Huitziko elkartearen kanpoaldean egin zuten lehen saioa. Eta, handik, Ondarreta aldera abiatu ziren, ondoren, Kale Nagusira joan, eta herrigunean kantari jarraitzeko.



Taldea, Juan Bautista Erro kalean. AIURRI

Kalez kale Kale Nagusitik Zumearantz abiatu ziren, Txistoki plazaraino. Hainbat saio eskaini zituzten Goikoplazara iritsi bitarte. Talde handia izanik, kalean zein etxeetan zeuden herrikideen arreta bereganatu zuten.



Elizondo tabernan egin zuten saio txoa, iluntzean. AIURRI

Azkena, afaldu aurretik Elizondon saioa eskaini eta gero Ontzako bidea hartu zuten kantu errondan parte hartu zuten gehienek. Ohikoan baino jende gehiago elkartu zen kantu kalejiraren osteko afarian.



andoainDARRA
euskaraz



Arene Etxarri, Izaro Etxarri, Itziar Alkain, Irati Aranguren, Intza Navarro, Izaro Zuriarrain eta Aitzol Zuriarrain. ANDOAINGO

“Taldea gisa lehiatzen ikastea da aurtengo xedea”

KADETE ETA JUNIOR MAILAKO LASTERKARIAK ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLA **TXIRRINDULARITZA** 1984tik hona ibilbide oparoa osatu du Andoaingo taldeak. Urteotan emakumezko txirrindularitzaren loraldia bizi dute. Gogo biziz datoz neskek

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN
Joan den urteko lorpenei eutsi nahi die Andoaingo Txirrindularitza Eskolak, baita gainditu ere: pedalkadei gogor emateko prest dira.

Iragan urtea borobilduta, kemenez hasi nahi dute Andoaingo Txirrindulari Eskolako emakumeek aurtengo denboraldia. Udaberritik aurrera, etxe gertuko nahiz Espainiako errepi-

deetan barrena murgilduko dira. Bien bitartean, kostaldeko bihur-guneetan gozatzen dute gehien, eta pozgarria zaie infantiletan, kadeteetan eta jubenetan kideak dituztela ikusteak.

Gogor datoz Intza Navarro, Ixiar Alkain, Izaro Zuriarrain, Irati Aranguren eta Izaro Etxarri.

Lorpen politak, interesgarriak eskuratu zenituzten 2022an. Prest al zaudete 2023ak dakartzan erronkei erantzuteko?

Bai. Aurten, banatu egingo gara. Lehengo urtean, lau neska ginen kadeteetan; orain, aldiz, erdia, bi jubenetara igaro garelako, eta, kategoria horretan, taldea osatzeko aukera daukagu. Talde gisa lehiatzen ikastea da xedea, eta, jubenen kasuan, mailari neurria hartzea. Kadetei dago-kionez, lehiakide gogorra geneukan, eta, askotan, joaten uzten genion. Bada, taldean lana eginda, aurten, behin baino gehiagotan aurrea hartu die-zaiokegula uste dugu.

Infantiletan, kadeteetan eta jubenetan dituzue kideak. Pozgarria da askotariko adineko emakumeak zaudetela ikustea, ezta?

Geroz eta emakume gehiago ari dira sartzen txirrindularitzan, eta pozgarria da hori, belaunaldi berriak datozela ikustea.

Entrenatzera errepidera irten behar. Zer moduzko gidariak daude Euskal Herrian?

Kadete eta junior mailakoak

Andoaingo Txirrindulari Eskolako neskek maila handia erakutsi zuten, iaz. Gauzak ondo, bide beretik ibiliko dira 2023an. Poz ugari eskainiko dizkiete klubari eta etxekoei.

- Kadeteak: Izaro Etxarri, Itziar Alkain eta Irati Aranguren.
- Juniorrak: Intza Navarro eta Izaro Zuriarrain.
- Prestatzaileak: Arene Etxarri eta Aitzol Zuriarrain.

Denetik dago, baina, azkenaldian, oso txarrak. Batzuk, errespetuz, tartea hartuta aurreratzen dizute, beste batzuei, aldiz, berdin zaie nola pasa. Askotan, bozina jotzen digute. Eta, neskek garelako ikusita, gehiago. Egia da txirrindulari txar asko dagoela, baina gidariak ere bai!



Urteroko tradizioari eutsiz, talde osoko eta taldekako argazkiak egin zituzten Goikoplazan. Denboraldia hastear den seinale izan ohi da, urteko sasoi honetan antolatzen dutena. ANDOINGO

Denboraldi berriaren aurkezpena

Andoingo Txirrindulari Eskolak aurreko larunbatean egin zuen 2023ko denboraldiari dagokion argazki-sesioa. Prestatzaile eta txirrindulari ia-ia guztien bilgune izan zen Goikoplaza. Aurreko lerroa: Urko Zelaia, Lizar Zuriarrain, Unax Urizar, Xan Lujanbio, Olaia Gayoso, Unax guisado, Ugaitz Tejeria, Liher Labaka, Aimar Guisado, Iker Medina, Mauro Fernandez, Peru Hernandez. Atzeko lerroa: Izaro

Zuriarrain, Izaro Etxarri, Xabat Zuriarrain, Markel Marzol, Peru Sarasola, Eneko Ugartemendia, Markel Tamayo, Oihan Mitxelena, Xemark Arteaga, Ganix Ormazabal, Iker Ugartemendia, Markel Etxarri, Ekhi Arrieta, Izaro Zuriarrain, Intza Navarro, Irati Aranguren eta Itziar Alkain. Entrenatzaileak makurtuta ezkerretik eskuinera: Ibai Omeñaka, Jose Luis Barberena, Arene Etxarri, Pedro de

Godos eta Aitor Amutxastegi. Entrenatzaileak zutik ezkerretik eskuinera: Patxi Altuna, Luis Beneitez, Xabier Perez, Unai Galarza, Iñaki Arin, Aitzol Zuriarrain, Jose Sanchez eta Jon Mikel Mujika. Oharra: Argazki honetan hiru txirrindulari falta dira. Maddi Ormazabal eta Luken Garmendia infantil mailakoak eta Liher Albizu alebin mailakoa.

Tamalez, lasterketa gutxi egiten dituzue Gipuzkoan, sei, zehatz-mehatz. Ondorioz, urrutira joan behar izaten duzue, nora?

Valladolid, Leon, Balmaseda... **Horrelakoetan, asteburu osoa hartzen al dizue lasterketak?**

Normalean, egun berean egiten dugu joan-etorria. Oso urrutibada, egun bat lehenago, baina ez da ohikoena. Goizeko 06:00tan esnatu egin behar izan dugu inoiz lasterketara joateko, baita

iluntzeko 20:00tan etxeratu ere. Egun osoa kentzen dizu. **Errendimenduan, eragina izango du horrek?**

Bai, jakina. Azkenean, ez da gauza berbera, hiru ordu kotxez egin behar izatea edo etxetik hamar minutura edukitzea lasterketa. Alde handia dago.

Askotariko txokotako txirrindulariak biltzen zarete lasterketetan.

Espainiako Kopa denean, esaterako, ia lasterketa guztietara

joaten dira txirrindulari asko dauzkaten talde handiak. Ez gaude neska asko; ondorioz, elkartu egin behar.

Ezaugarri ezberdinak dituzten errepideetan entrenatzen duzue. Alegia, toki askok ez dituzte, besteak beste, Euskal Herrian dauden malda gorabeheratsuak.

Bai, dezente. Hemen, jaitsierak daukazu, baina, Valladoliden, esaterako, ez, eta antzematen da hori. Horrez gain, ez da modu

berean sartzen haizea eta tenperatura ere aldatu egiten da. Horrek denak baldintzatu egiten du.

Txirrindulari gutxi zaudetenez, tarteka, mutilekin lehiatu behar...

Hori da. Nahiz eta oso aurrean ez amaitu, ondo datorkigu, erritmoa hartzeko. Horietan, lasterketa amaitzea izan ohi dugu xede. Oso desberdina da, jarretatik hasita. Mutilen kasuan, hasi bezain pronto estutzen dute.

Neskei dagokionez, azken aldapan edo portu batean gertatu ohi da hori.

Udaberria hastearekin batera, lasterketen martxan sartuko zarete berriz. Pedalkadei gogor emateko prest?

Kantabrian, Nojan hasiko dugu denboraldia, Espainiako Koparekin. Besteekin alderatuta, ea nola gauden ikusi nahi dugu. Gogo handia dugu, aurrera-denboraldia luzea egiten da eta!



Hainbat mahaitan elkartu ziren kideak taldeko argazkia egiteko elkartu ziren. EUSKALDUNA

Hausnarketa eguna

FUTBOLA Etorkizuna eraiki, iraganetik ikasiz. Horixe izan zitekeen Euskaldunaren egitasmoaren helburuetakoa. Mendeurrenean murgilduta, atzoko eta gaurko eragileen topalekua antolatu zuten. Hausnartzeko eguna izan zen

Erredakzioa ANDOAIN

Futbola oinarri, ideiak eta pentsamenduak elkarbanatu zituzten, herriko taldearen gainean hausnartzeko. Euskalduna Futbol taldeko bazkideak elkartu ziren Bastero Kulturgunean mahai inguruan, iragana aztertu, orainaz hitz egin eta etorkizuna begirako erronkak aztertzeko. Ainhoa Aiartzaren gida-

ritzapean, mendeurreneko bideoarekin ekin zioten ekitaldiari, eta, ondoren, sei mahaitan banatu ziren bazkideak. Mahai bakoitzean, Euskaldunaren gaineko gai bana jorratu zen; besteak beste, Etxeberrieta futbol zelaia, Ubitarte futbol zelaira aldaketa, Euskalduna eta Andoainen arteko erlazioa, futbola, Euskalduna etorkizunari begira

eta auzolana kirol zein kultur taldeetan. Parte-hartzaileak mahaiez mahai igaro ziren, ideiak eta iritziak elkar trukatzeko.

Antolatzaileen esanetan, oso ekitaldi interesgarria eta aberasgarria izan zen; adin ezberdinetako bazkideak bertaratu zirenez, gaiaren analisi zabala goa eta sakonagoa egiteko aukera eduki zuten.



Amaia Mellado, Urnieta Quel Abogados taldeko jokalaria. UKE

Indartsu ekin diote bigarren itzuliari, atsedean hartu ondoren

ESKUBALOIA Urnieta Quel Abogados taldeak garaipen argia eskuratu zuen Egiaren kantuan (18-26)

Erredakzioa ANDOAIN

Hasiera ona eman dio Urnieta Quel Abogados taldeak Ligako bigarren itzuliari, Egi taldearen aurkako partida irabazita (18-26). Hasiera batean, Donostiako taldea aurreratu zen markagailuan, baina, hurrengo hamabost minutuetan, zazpi goleko partziala lortu zuten. Markagailua irauli eta norgehiagoka urnietarren aldeko partida bilakatu zen. Gorrien nagusitasuna nabarmena izan zen hortik aurrera, partidaren amaierara arte.

Aurreko jardunaldietan La Salle eta Txingudi taldeen kantuan garaipen bana lortu ostean, atsedena iritsi zitzaion Urnieta taldeari. Asteburu honetan, Egiaren kantuan arituda, eta, datorrenean, Tolosa taldea hartuko du. Bolada onari eusteko aukera berria, hurrenbestez.

Eibar liderrak, itxuraz, partida erraza du artean garaipenik ez duen Legazpiren aurka ariko baitira. Orio bigarren sailkatuak zailxeago du, Munttarperen aurka ariko baita.

Ligan gol gutxien jasotzen duen taldea da Urnieta Quel Abogados. Defentsa lan horri esker eta lortu dituzten hamar garaipenik esker, sailkapenaren gaikaldean dira gorritxoak.

ESKUBALOIA

1. Lurraldeko senior emakumezkoa

SAILKAPENA

1	EIBAR	25 puntu
2	ORIO	21 puntu
3	URNIETA QUEL ABOGADOS	20 puntu
4	IRAULI	19 puntu
5	MUNTARPE	18 puntu
8	TOLOSA	13 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Urnieta-Tolosa / Ig, 12



EUSKALDUNA

Ohorezko jubenil mailakoak, lehen postuetan

FUTBOLA 18. jardunaldian, Euskaldunak berdinketa lortu zuen Beasainen aurka (1-1). Anaitasuna liderrak, aldiz, galdu egin zuen. Sailkapena estutzen ari da.

FUTBOLA

SAILKAPENA

1	ANAITASUNA	36 puntu
2	EUSKALDUNA	34 puntu
3	ORDIZIA	29 puntu

Bi aste atzera, Elgoibarko Mintxetan alebinen partida amaitu eta segidan irten ziren jubenil mailakoak. Elkarrekin argazki polita atera zuten.



Ansa eta Barrenetxea, artxiboko irudian. ORIAMENDI

Ezustekorik ez eta finalean dira Ansa eta Barrenetxea

ERREMONTEA Ligaxkako hirugarren partida, asteburu honetan. Eta finala, datorren otsailaren 18an

Erredakzioa ANDOAIN

Ezkurra Ilk Kutxabank Master txapelketako ligaxkaren lehen bi partidak galdu ditu Barrenetxea eta Ansaren aurka, eta honezkero finaletik kanpo geratu da. Ligaxkako hirugarren partida Barrenetxea eta Ansa favoritoen artekoa izango da, eta asteburu honetako partida sailkapena erabakitzea besterik ez da geratuko. Biak, emaitzak emaitza, otsailaren 18ko finalean baitira.

Iazko finala errepikatuko da, beraz. Orduko hartan Barrenetxea nagusitu zen eta oraingoan ere bere nagusitasuna erakutsi nahiko du. Baina Ansa ate joka dator eta berandu baino lehen txapela eskuratuko du. Beharbada, datorren otsailaren 18an. Aurtengo txapelketak badu hutsune bat, Urriza ez baita lehiatzeko erabat osatu. Masters txapelketan nagusi da, 6 txapel

eskuratu baititu azken hamar urtetan. Barrenetxeak 2 lortu ditu, eta beste bat gehiago jantzi nahiko luke.

Ansa-Ezkurra kronika

Ansak garaipen argia eskuratu zuen. Urrietarrak aise gainditu zuen Ezkurra, ez zion aukerarik eman. Maila altua erakutsi zuen partidari, kolpe indartsuekin eta fisikoki oso bizi. Nafarrak ezin izan zuen jokoan sartu eta lan handia eduki zuen Ansari aurre egiten. Imanol Ansak hasieratik hautsi zuen partidako jokoa. Horrela, 6-1 eta 11-5 aurreratu zen eta sei eta zazpi tantoko abantailak izan zituen; azkenean, 21-9, 25-13, 28-16 eta 30-17eko emaitzak lortuta aurkaria gutziz mendean hartu zuen.

Pilotakada gutxiko partida izan zen, eta 40 minutuko iraupena besterik ez zuen eduki. Ansa hobea izan zelako.

FUTBOLA Urrietak Sanpedrotarrak Bren aurka galdu zuen

Etxetik kanpo irabazi zuen igogera faseko lehen jardunaldian, baina oraingoan Zubietan Sanpedrotarra B taldearen aurka galdu zuen (1-3). Asteburuan berriro etxeko arituko dira, oraingoan Mariñoren aurka. Sailkapenean aurrealdean jarraitzeko aukera aproposa.

Euskalduna hirugarren postuan da, sailkapenean

FUTBOLA Bolada onean da talde urdina. Etxetik kanpo Touring (2-3) garaitu zuen, aurreko asteburuan

Erredakzioa ANDOAIN

Garaipena eskuratuta, gainera, Touring taldeari aurrea hartu dio sailkapenean. 19. jardunaldian Euskalduna Ubitarten ariko da, Usurbil taldearen aurka. Sailkapenean azken aurreko postuan da. Euskaldunak goian jarraitzeko aukera berria du.

FUTBOLA

Gizonezkoen Gorengo maila

SAILKAPENA

1	REAL UNION	42 puntu
2	DEUSTO	36 puntu
3	EUSKALDUNA	34 puntu

ASTEBURUAN UBITARTEN

18:15 Euskalduna-Usurbil / Lar, 11



Ane Meyer BURUNTZALDEA

Ane Meyer, Buruntzaldea IKTko ordezkaria Andoingo saioan

IGERIKETA Allurralden jokoan izan zen Gipuzkoako Neguko XIII. Saria, aurreko asteburuan

Erredakzioa ANDOAIN

Guztira 13 talde aritu ziren lehian, 140 igerilariren parte-hartzearekin. Buruntzaldea IKT taldea ordezkatzu Ane Meyer andoaindarrak lan txukuna egin zuen, taldeak adierazi duenez: "Gure taldetik igerilari bakarria aritu

zen; Ane Meyer. 100 bular proban eta 100 librea lehiatu zen". Eta eskerrak eman dizkiete laguntzaileei, horrelako proba bat antolatze lagun askoren beharra baitago: "Eskerririk beroenak lehiaketa aurrera eramaten laguntza eman zuten bolondresei".

Mendizabal finalean da

ESKUPILOTA Nora Mendizabalek eta Amaia Aldaik Bizkaia Torneoko finala jokatuko dute Mendizabalek eta Aldaik Arrizabalaga-Oses bikotearen aurka jokatuko dute ostiralean, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Bizkaia frontoian. Lehenik, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida jokatuko da, eta, ondoren, final handia.



EITB

Bigarren garaipena

SASKIBALOA Junior mailako partidetza fase berrian bi garaipenekin ekin dio Ganbarak. Lehen jardunaldian Aterpe garaitu ostean, aurrekoan TAKE taldea garaitu zuen Tolosan (54-58). Asteburuan Astigarraga dator. Garaipenik eskuratu gabe daude.

ASTEBURUAN ALLURRALDEN

10:30 Ganbara-Astigarraga / Lar, 11



AIURRI

Laugarren postuan

ESKUBALOA Ligan, 1. lurraldeko seniorretan, maila ona ematen ari dira nahiz eta azken bi partidatan garaipenik ez lortu. Aurrekoan etxean ezin izan zuen Ormaiztegi garaitu (24-28). Eta bi asteburu atzera liderraren etxean galdu zuten.

Garaipenik ezean, sailkapena estutzen doa eta, orain, laugarren postuan dira andoaindarrak.



LEIZARAN

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 9

ANDOAIN Erakusketa

Andoainen jaio eta Barasoainen hil zen Imanol Goikoetxea artistaren obrak ikusgai daude.
Otsailak 25. Bastero.

OSTIRALA 10

ANDOAIN Kaldereroak

Haur eta gaztetxoek kalejira, Gora Kaletxiki txarangak lagunduta.
15:00, Ondarreta ikastetxea.

LARUNBATA 11

ANDOAIN Kaldereroak

Ohi bezala, Kaletxiki eta San Juan Bataiatzailea egoitza abiatuko dira eta hortik Goikoplazara. Kanpalekua jarri ostean, herrigunerantz abiatuko dira.
17:00, Kaletxiki.

URNIETA Mus txapelketa

Euskal Herriko XIV Mus Txapelketako kanporaketa.
16:30, Arima padel elkarte.

IGANDEA 12

URNIETA Haur antzerkia

"Perez Sagutxo".
17:30, Sarobe. 3 euro.

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Ene Kantak taldearen ikuskizun berria, "Emozio Festa".
12:00-16:00, Bastero. 4 euro.



Ugaitz Alegria zuzendaria, aktore taldearekin. GLUGLU

URNIETA Perez Sagutxo

Pertsonaia ezagunaren bertsio honetan, istorioaren erdigunean zaintza izango da; pertsona ahulenen zainketak hain zuzen ere, hala nola, etxeko zaharrenak edota haurrak.
Otsailak 12, igandea. Sarobe. 17:30. 3 euro.

ASTEARTEA 14

ANDOAIN Haur literatura

2018an jaiotako haurrei zuzenduriko irakurketa zikloa. Heldu batekin gerturatu behar dute haurrek. Martxoaren 14an eta apirilaren 18an izango dira hurrengo saioak.
17:30, Udal Liburutegia.

OSTEGUNA 16

ANDOAIN Inauteriak

16:10 Pregoia eta txupinazoa.
18:00 Potx eta Lotx pailazoak.
18:30 Olagainen kalejira.
Arratsaldean hasita.

OSTIRALA 17

ANDOAIN inauteriak

18:00 Kalejira.
21:30 Kokein Goikoplazan.
23:15 Natural Project Goikoplazan.
Arratsaldean hasita.

LARUNBATA 18


URNIETA Inauteriak

14:00 Herri bazkaria.
17:00 Kalejira, ospakizun nagusia.
Egun osoan.

ANDOAIN Inauteriak

Mozorro festa nagusia.
Egun osoan.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

La ballena

Lar, 11. 19:30,
22:00.
Ig., 12. 19:30.
Astl, 13. 19:30,
22:00.

El triangulo de la tristeza

Lar, 18. 19:30,
22:00.
Ig., 19. 19:30.
Astl, 20. 19:30,
22:00.

Los Fabelman

Otsailak 25-27.



SINOPSIS



La ballena (The Whale)

Zuzendaria: Darren Aronofsky. **Gidoia:** Samuel D. Hunter.

Aktoreak: Brendan Fraser, Sadie Sink, Hong Chau, Ty Simpkins, Samantha Morton, Sathya Sridharan, Jacey Sink. **Herrialdea:** AEB (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, familia, gaixotasuna. **Iraupena:** 117 min.

Fraserren erakustaldia

Veneziako zinema jaialdian hasi eta hurrengo hilabeteetan zeresana eman du filmak, eta bereziki Brendan Fraser

aktorearen lanak. Oscar sarietako hautagaietako da. Filman ingelesa erakusten duen irakasle bakartia da.

Inauteri giroko apaingarriak jartzeko deialdia

"Inauterietako giroa herrian nabari eta zabal dadin, jai batzordeak etxeetako balkoiak eta

leihoak globoz eta koloretako oihalez janztera animatzen ditu andoingo bizilagunak". Andoingo Kultura sailaren deialdia da. Andoain edo Urnieta izan, bi udalerrietarako baliagarria da.

kutxabank
MASTERS
TXAPELKETA 2023

OTSAILA 11 LARUNBATA
15:30ETIK AURRERA

GALARRIETA JAI ALAJ HERNANI

1. PARTIDUA (30 TANTO)
SEGUROLA - ZUBIRI vs
ALDABE - ZALDUA

2. PARTIDUA (30 TANTO)
URRIZA - AZPIROZ vs
EZKURRA II - LARRANADA

MASTER TXAPELKETA (30 TANTO)
BARRENETXEA IV vs ANSA II

Sumarrari sartzerako
bentak de Euzkoak

GUTUNA

LASTERKA ITZULI ANDOAIN

Andoaingo VI. San Silbestre lasterketaren antolatzaile taldeak eskertza mezua helarazi nahi du. Bi urteko etenaldiaren ondoren, berriz, antolatu ahal izan genuen urteko azken eguneko lasterketa. Antolakuntzak, izena eman zuten lasterkari guztiei eskertza adierazi nahi die, baita, adinagatik, lasterketan parte hartu nahi, baina, izena eman ezin izan

zuten guztiei ere. Andolaketan lagundu zuten herritar guztiei eta baliabideak jarri zituen Andoaingo Udalarari ere eskerrik beroenak.

Eta nola ez, beharrezkoak diren baliabideak eta zozketarako sariak eskaini zituzten herriko enpresa eta komertzio txikiei, eskerrik asko guztiei!

Aurten ere, urteko azken egunean, elkar ikusiko dugu.



BERTSOA

Bertso afarira, Aiurriren eskutik

Mizpiradi sagardotegian, ostiral honetan. Aitor Mendiluze eta Unai Agirre bertsolariak girotuko dute afaria. Aiurrik bi afari zozkatu ditu harpidedunen artean, astearen hasieran. Berehalda hasi ginen zozketarako harpidedunen izenak jasotzen eta irabazlea Margari Zubeldia Zubillaga izan da. Aiurriko harpidedun izateak, bistakoa da, saria dakar.

Informazio bulegoa, zabalik

Energia Komunitatearen gaineko zalantzak argitzeko zabalik dago, otsailaren 23ra bitarte

Erredakzioa URNIETA

Abian da herriko Energia Komunitatearen aldeko kanpaina: "Elkarrekin teilatuak energia bilakatzen". Aurkezpen ekitaldiaren ostean, eta, atariz atari, liburuxkak banatu ondoren, informazio-bulegoa ireki da kiroldegian.

Urnietarrek proiektuaren gaineko edozein zalantza argitzeko aukera izango dute. Bestalde, komunitatera batzeko eskaera osatzen lagunduko zaie zailtasunen bat duten pertsonen.

Bulegoa otsailaren 23ra arte zabalik dago, asteartetik ostegunera (10:00-14:00 eta 16:00-20:00).

GUTUNA

TXAKURREN LAGUNAK ANDOAIN

Antolatzaileei eskerrik asko

Andoaingo txakur jabeen talde bat gara zeinak San Silbestre lasterketako antolakuntzari eskerrak nahi dizkiogun. Urte mordoaren ostean, lehenengo aldiz, suziririk gabe San Silbestre karrerari hasiera eta amaiera ematea lortu da, txilipitu baten laguntzaz. Batzuentzat aldaketa txiki bat bakarrik izan arren, txakurron jabe garenok, badakigu suziri batek zein eragin duen gure txakurretan. Txakurrek asko sufritzen dute etxafuego bat entzuten dutenean, asko panikoan sartzen dira, infartoak sufritzen dituzte, krisialdiak pairatzen dituzte eta ezinezkoa da txakurrak lasaitzea. Beraien larruzalean jartzeko adibide garbi bat da ondorengo bideo txikia, zenbateraino sufritzen duten argi ikusten baita bertan. QRan klik eginez ikus daiteke.

Hau guztia ikusita, berriro ere benetan eskerrak eman nahi dizkiogu San Silbestreko antolakuntzari. Arazo hau erraz sahiestu daitekeelakoan, dei egiten diegu, beste elkarte, ntolakuntza eta taldeei, hemendik aurrera suzirien erabilerari buelta bat eman eta arazo hau kontutan hartzea. Kontuan izango gaituzuelakoan.



Beste kulturetatik datozenen errealitatea

Andoaingo parrokiak lan saioa antolatu du, Elizbarrutiko Carritasen gidaritzapean. Datorren otsailaren 13an izango da, 19:00tan hasita San Martin parrokiako aretoan, Eguneko zentroaren ondoan. "Etorkinak, beste kulturetatik datozenen errealitatea" izenburupean, herritarrak gonbidatu nahi ditu Andoaingo Sinodo dinamizatzaile taldeak

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

Emilio eta Ixabel

Datorren otsailaren 8an, Emilio Sanz eta Ixabel Sagarnak Platinozko ezteiak ospatuko dituzte, 65 urte ezkondu zirela. Haien seme-alaben konpainian, Marixabel, Patxi, Juan Luis eta gainerako senideek.



ANDOAIN

Zorionak hirukote!!!

Unai eta Jonen urtarriaren 18an 5 urte bete zituzten eta Uxuek otsailaren 4ean, 8 urte. Zorionak hiruei eta jarraitu orain bezain maitagarri eta jator! txekoak.



ANDOAIN

Zorionak bihurri pare!!

Gorka eta Anne lehengusuek 2 urte beteko dituzte otsailean. Eskerrik asko goizetik gauera "ambientia" jartzeagatik! Zoragarriak zarete! Muxuak Nere, Anje eta familia guztiaren partetik.



ANDOAIN

Zorionak Jon!

Otsailaren 14an 11 urte beteko ditu Jon Loiarrek. Urte guzti hauetan hamaika alaitasunen eragile izan zara... Bizipoz horrek betirako iraua diezazula! Zorionak, maitea! Etxekoak



URNIETA

Zorionak Irene

Zorionak herriko pertsona makarra eta gozozalean! Otsailaren 10ean urteak beteko ditu. Segi bazterrak nahasten betaurreko berde hoiek jantzita! Muxu bat lagunen partez!

Antia literatur lehiaketaren edizio berria

Hiru kategoria desberdin egongo dira aurten: haurren, gazteena eta helduena. Lanak aurrez aurre jasoko dira edota, bestela, posta arruntez igorriko dira ondoko helbide honetara: Lekaio, San Juan plaza z/g 20130 Urnieta (Gipuzkoa). Parte hartzeko epea martxoaren 17ra arte egongo da zabalik.

Andoaingo Odol-emaileen hitzordu berria

Andoaingo odol emaileen hitzordua datorren otsailaren 13an izango da, astelehenarekin. Andoaingo Anbulatorioan eman behar da odola, arratsaldeko 16:30ean hasi eta iluntzeko 20:10ak arte. Egunean bertan, goizez, hitzordua hartzeko telefonoz deitu behar da honako zenbakira: 943 007 884.



www.aiurri.eus

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia



Dozenaka lagun elkartu ziren ospitalaren kanpoaldean. TOPA



Protesta ekitaldia ospitale barruraino eramán zuten, larunbat eguerdian. TOPA

Herritarren protesta Donostia Ospitalean

TOPA Tolosaldeko plataformak deitu zuen, besteak beste, "Tolosaldean jasotzen ari garen osasun arretak kalitate txarragoa duela EAEko gainerako eskualdeetakoek jasotzen duten arretak baino". Andoain, osasun arloan, Tolosako eremuan sartua dago

Xabier Lasa ANDOAIN

Donostia Ospitalean atendituak izateko eskubidea exijituz, Tolosaldeko ehunka herritarrek bertan elkarretaratzea egin zuten, joan den larunbatean, TOPA (Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde) plataformak deituta.

Plataformak urteak darama aldarrikapen baten inguruan, hots, "hemen jaso nahi dugun

osasun arretak EAEko gainerako eskualdeek jasotzen dutenaren antzekoa izan behar" duela.

Donostiako elkarretaratzean adierazi zuten, "Tolosaldeko ospitale berria martxan jarri bitartean, paziente bat ados ez badago Tolosaldean eskaintzen zaion arretarekin, aukera eduki dezala Donostia ospitalera eta hango espezialistengana joateko,

Asuncion Klinikarekin sinatu zen hitzarmenaren aurretik egin zen bezalaxe. Eta Tolosaldean jasotzen duen arretarekin gus-tura dagoenak jarrai dezala klinikara eta haren kontsultategietara joaten".

Elkarretaratzean gaineratu zuten, "Tolosaldean jasotzen ari garen osasun arretak kalitate txarragoa duela EAEko

gainerako eskualdeetakoek jasotzen duten arretak baino".

Baieztape horrekin alde gut-tiek bat egiten dutela ere adie-razu zuten: "Urtetan eta urteetan ukatu eta gero, azkenean, denek onartu dute, alderdi politikoe-k osasun alorreko arduradun poli-tikoe-k (sailburua, lurraldeko idazkaria...), baita Donostia ospitaleko zerbitzaburuek ere azken aldian".

Plataformaren ustetan, "ekitate falta hori konpentsatzeko" eskualde ospitale publiko bat eraikitzea erabaki dute.

Asuncion klinikaren gabeziak

Tolosaldean arazo larriak dauz-kagula adierazi zuten TOPA plataformak Donostiako protes-tan, eta bi arrazoi argudiatu zituzten: "Patetik, Asuncion klinikari espezialistak falta zaikio, baldin eta konparatzen badaugu ospitale publikoak dituz-ten beste eskualdeekin, izan ere, haietan, taldean lan egiten duten espezialisten ekipoak dituzte; eta, bestetik, klinikako espezia-

lista gehienek ez dute titulu homologaturik, MIR egin gabe daukate, gainerako ospitale publi-koetan ez bezala".

Bi arrazoi horiei, hirugarren bat gehitzen dio plataformak: "Pertsonalak arretan eraginda-ko kalitate falta horri gehitu behar zaio klinikak azpiegitura aldetik duen gabezia, batik bat larrialdietan eta kirofanoetan. Lekutan dago gainerako eskual-de ospitale publikoekin alderata-tuta!".

Azkenik, plataformak galdetzen du ea "zenbat urte egon behar ote dugun" egungo egoera bizi-tuz. "Urteak beharko dira ospitale berria martxan jartzeko, luze joango da, Sailburuak berak hamar urteko kontua aipatu izan du; izan ere, Eusko Jaur-laritzak ospitale berriaren proiektua idatzi beharko du, eta Tolo-sako Udalak, berriz, Hiri Anto-lamenduko Plan Orokorra alda-tu beharko du, izendatutako orube horretan, eraiki ahal izateko. Gero, jakina, eraiki egin beharko dute eta hornitu".




MIZPIRADI
-SAGARDOTEGIA-

Leizotz auzoa, 14
ANDOAIN
618 67 69 94

